

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IBARGURENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Mugaketako administrazio espedientea

Ibargurengo Administrazio Batzarrak, 2021eko otsailaren 4ko bilkuran, hau erabaki du:

Lehenengoa. Hasiera ematea Ibargurengo San Martin kalean kokatutako lursail bat mugatzeari. Lursail hori Ibargurengo kale nagusitik hasten da eta hauek dira haren indarreko katastro mugak:

Iparraldean: Asparreneko 3 poligonoko 342 eta 247 katastro lurzatiak.

Hegoaldean: Asparreneko 3 poligonoko 243, 246, 245, 244 katastro lurzatiak.

Iparraldean: Asparreneko 3 poligonoko 242 katastro lurzatiak.

Mendebaldea: bide publikoa.

Bigarrena. Neurtze lanak iragarkia ALHAOn argitaratu eta bi hilabeteren buruan hasiko dira egiten, aipatutako lekuan.

Neurtze lan horiek Ibargurengo Administrazio Batzarreko teknikariek zuzenduko dituzte, eta lehendakari-erregidorea ere bertan egongo da. Lanak goizeko 10:00etan hasiko dira.

Hirugarrena. Erabaki honen berri ematea mugatze lanetako lursailaren mugakide diren jabeei, eta espedientea jendaurrean jartzea, neurketa lanak hasi baino 60 egun baliodun lehenago argitara emanda ALHAOn eta Ibargurengo Kontzejuaren iragarki taulan.

Jendaurreko epean, espedientea interesdunen eskura egongo da Ibargurengo Kontzejuaren Aretoko bulegoetan (alde zentralerik jarri harremanetan batzarreko lehendakari Jesús Martínez Urrarekin telefono honetan: 606 55 16 40).

Laugarrena. Interesa duen edonori jakinaraztea bere eskubideak frogatu eta aldezteko egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkez ditzakeela Ibargurengo Kontzejuaren Aretoko bulegoetan, neurketa lanak hasi baino hogeita egun lehenago arteko epean. Epe hori igaro ostean ez da onartuko ez agiritik ez alegaziorik.

Administrazio Batzarrak dagokiona erabakiko du agiriaren eta gainerako frogaren gainean, horiek aurkezteko epea amaitu eta mugaketa hasteko finkatu den egunaren bezpera arte, eta une egokian jakinaraziko zaie interesdunei.

Bosgarrena. Ezarritako egunean, aipatutako tokira joango dira zerbitzu teknikoak, zeinek adierazitako tartean bide publikoaren mugak zehaztasunez ezarri eta planoan egingo baitute, lehendakariarekin batera. Ondoren, akta egingo dute, Ondasunen Arautegiak 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak jasoko dituen, eta bildutako guztiek sinatuko dute.

Gero, Kontzejuaren bilkuran mugaketa ebazteko erabakia onetsiko da, zeina betearazlea izango baita, eta haren aurka egin ahala izango da administrazioarekiko auzien bidean.

Mugaketa onartzeko erabakia irmo egiten denean, mugarritze lanak hasiko dira, interesdunak tartean direla.

Seigarrena. Erabaki honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, izapide hutsa baino ez delako; edonola ere, egokitzat jotzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ibarguren, 2021eko otsailaren 19a

Lehendakaria

JESÚS MARTÍNEZ URRRA